- c) Kontabilitate Plan Orokorra eta haren arau osagarriak garatzeko Kontabilitate eta Kontu Auditoretza Institutuak (ICAC) onartutako derrigorrez bete beharreko arauak.
- d) Aplikagarria den Espainiako kontularitzako gainerako araudia.

2022 ekitaldiko urteko kontu laburtuak Fundazioaren kontularitza-erregistroetatik abiatuta prestatu dira eta bat datoaz aplikagarria den finantzaketa-informazioaren arau esparruarekin, eta, bereziki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideekin. Beraz, ondarearen, finantza-egoeraren eta Fundazioaren ondarean sortutako aldakuntzen irudi leiala erakusten dute, baita une horretan amaituta dagoen urteko ekitaldian garatutako jarduerarena ere.

2021eko urtarrilaren 1etk aurrera hasitako ekitaldien urteko kontuak egiteko, lege berri hauek aplikatzen dira:

- 2007ko azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretua onartzen duen Kontabilitate Plan Orokorra aldatzen duen 2021eko urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretua; 2007ko azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuak onartzen duen Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorra; 2010eko irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuak onartutako Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Araudiak; eta Kontabilitate Plan Orokorra onartutako irabazi asmorik gabeko erakundeei egokitzeko 2011ko urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuak onartutako arauak.
- Kontabilitate eta Kontu Auditoretza Institutuaren 2021eko otsailaren 10eko ebazpena, ondasunak entregatzeagatik eta zerbitzuak eskaintzeagatik sortutako diru-sarrerak aitortzeko urteko kontuak erregistratzeko, baloratzeko eta egiteko arauak ezartzen dituena.

Sozietatearen ekitaldi soziala ez datorrenez urte naturalarekin bat, araudi hori aplikatzeko lehen urtea 2021eko urtarrilaren 1a izan da.

Egindako azterketaren eta ezarpenaren arabera, araudi hori indarrean sartzeak ez du inolako inpakturik izan; finantza-aktiboen eta -pasiboen balorazio-sailkapenean kategoria aldatu ditu soilik. Araudi berrian eskatzen den edukira egokitu dira horiek.

Erantsitako urteko kontu laburtuak Fundazioaren Patronatuak onartuko ditu, eta inolako aldaketarik egin gabe onartu dituela aintzat hartuko da.

Urteko kontu laburtuetan ageri diren kopuruak eurotan daude adierazita, Fundazioaren aurkezpen-moneta funtzionala baita.

## **2.2 Derrigorrezkoak ez diren kontularitza-printzipoak**

Urteko kontu laburtu hauek egiteko aplikatu diren kontularitzako printzipo eta irizpideak memoria laburtu honen 4. oharrean adierazitakoak dira. Aipatutako printzipoak eta irizpideak bat datozer derrigorrez aplikatu behar direnekin, eta ez dira derrigorrezkoak ez diren kontularitzako printzipo eta irizpideak aplikatu.

## **2.3 Ziurgabetasuna baloratzeko eta balioesteko alderdi kritikoak**

2022ko ekitaldiko urteko kontu laburtuak prestatzean, Fundazioaren Patronatuak egindako judizioak eta estimazioak erabili dira, horietan erregistratuta dauden aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta kompromiso batzuk kuantifikatzeko. Estimazio horiek esperientzia historikoan eta egungo baldintzen arabera arrazoizkoak diren beste faktore batzuetan oinarritzen dira.

Ekitaldia ixteko garaian, ez dago datorren urteko aktibo eta pasiboen balioan aldaketa esanguratsuak eragin ditzakeen eta arrisku handia ekar dezakeen etorkizunari buruzko balizko gakorik, ezta ziurgabetasunaren estimazioari buruzko beste datu esanguratsurik ere.

Ez da aldaketarik izan esanguratsuak diren eta egungo ekitaldian eragina duten edo etorkizuneko ekitaldietan eragina izan dezaketen aldaketarik kontularitzako estimazioetan.

## **2.5 Informazioaren konparaziona**

2022ko ekitaldiko urteko kontu laburtuek 2022ko ekitaldiko zifrak jasotzeaz gain, aurreko ekitaldikoak ere jasotzen dituzte, alderaketak egin ahal izateko. Hala da balantze laburtuaren eta emaitzen kontu laburtuaren partida bakoitzaren kasuan. Halaber, 2022ko ekitaldiko laburtutako memoria honetan jasotako informazioa 2021eko ekitaldiko informazioarekin alderaketak egiteko dago aurkeztuta.

## **2.6 Aldaketak kontularitzako irizpideetan**

2022ko ekitaldian zehar, ez da aldaketarik izan kontularitzako irizpideetan, aurreko ekitaldian aplikatutako irizpideei dagokienez.

## **2.7 Akatsak zuzentzea**

2022ko ekitaldiko urteko kontu laburtuetan ez dago ekitaldian hautemandako akatsen ondorioz egindako egokitzapenik.

## **2.8 Garrantzi erlatiboa**

Egoera finantzarioei edo beste gai batzuen partidei buruzko memoria laburtu honetan banakatu beharreko informazioa zehaztean, Fundazioak kontuan hartu du 2022ko ekitaldiko laburtutako urteko kontuei dagokien garrantzi erlatiboa.

### **3. Soberakina aplikatzea**

Ondare garbiari zuzenean egotxitako soberakinak ezin dira banatu, ez zuzenean, ezta zeharka ere.

2022ko eta 2021eko ekitaldietan zehar, emaitza nulua izan da, beraz, ez da soberakinik izan.

### **4. Erregistro- eta balorazio-arauak**

Fundazioak urteko kontu laburtu horiek egiteko erabilitako kontularitzako irizpide nagusiak hauek dira:

#### **4.1 Ibilgetu ukiezina**

Oro har, ibilgetu ukiezina erosketa-prezioaren edo produkzio-kostuaren arabera kalkulatzen da hasieran. Ondoren, dagokion pilatutako amortizazioaren araberako kostu murriztuaren balioa baloratzen da. Balio hori bere bizitza erabilgarriaren eta, hala badagokio, aittortutako narriadurengatik egindako balorazio-zuzenketetan pilatutako zenbatekoaren arabera kalkulatzen da.

Ibilgetu ukiezinak definitutako bizitza erabilgarriaren aktiboak dira, eta, beraz, amortizazioa izan dezakete.

#### ***Erabileran utxitako aktiboei buruzko eskubideak***

Gernikako Artekale 1 - 1. helbidean dagoen eraikina Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzakoa da eta bertan daude Fundazioaren bulegoak, inolako kontraprestaziorik gabe. Eraikinaren erabilera-eskubideak bere salmenta-balioan daude erregistratuta eta linealki amortizatzen dira hamar urteko aldian.

#### **4.2 Ondare historikoaren ondasunak**

Fundazioak material ibilgetuarentzat adierazitako irizpideen arabera baloratzen ditu ondare historikoaren ondasunak.

Liburutegia liburu, eskuizkribuen eta beste material bibliografiko batzuen edo beste edozein bitartekok errepruduzitutako materialen multzoa da, gela publikoetan edo aldi baterako maileguen bidez irakurtzeko sortua, eta hezkuntzaren, ikerketaren, kulturaren eta informazioaren zerbitzura dagoena. Eskuratze-prezioaren arabera baloratzen dira, eta, hala badagokio, narriadurragatik izandako hornidurak hornitzen dira.

Ondare Historikoaren ondasunak ez dira amortizatzen haien zerbitzu potentziala oso geldo erabiltzen bada, eta haien bizi erabilgarriak mugagabeak badira. Ez dute higadurarik haien funtzionamenduagatik, erabileragatik edo gozamenagatik.

### **4.3 Material ibilgetua**

Material ibilgetuko ondasunak erosketa-prezioaren edo ekoizpen-prezioaren arabera baloratzen dira hasieran, eta, ondoren, dagozkien pilatutako amortizazioaren eta narriaduragatik izandako behin behineko galeren kostu garbiaren balioarekin baloratzen dira.

Material ibilgetuaren ondasunak berritzeko, zabaltzeko edo hobetzeko kostuak ondasunaren baliorik handienaren gisan gehitzen zaizkio aktiboari, bere gaitasuna, produktibitatea edo bizitza erabilgarriaren luzapena baldin badakarte, eta ordezkatutako edo berritutako kontularitza-elementuak kendu egiten dira.

Aktiboen erabilera hobetzen ez duten eta bizitza erabilgarria luzatzen ez duten mantentze-, kontserbazio- eta konponketa-gastuak dagozkien ekitaldiko kostu gisa egozten zaizkie emaitzei, sortzapen-printzipioa jarraituz.

Eskudirutik sortu ez diren material ibilgetuaren ondasunak dira errendimendu komertziala sortzea ez beste helburu bat dutenak, esaterako, aktibo horiek sortzen dituzten eta kolektiboari, hau da, onura sozialari edo zerbitzuaren potentzialari, onurak ekartzen dizkieten fluxu ekonomiko eta sozialak.

Fundazioak metodo lineala jarraituz amortizatzen du bere material ibilgetua, erosketa-kostuari hondar-balioa kenduz, hala badagokio, eta kopuru hori estimatutako bizitza erabilgarriaren urteetan banatuz.

Aktibo baten besterentze edo ateratze batetik izandako etekina edo galera salmenta-prezioaren eta aktiboaren liburu-zenbatekoaren arteko desberdintasun gisa kalkulatzen da, eta laburtutako emaitzen kontuan aitortzen da.

Fundazioaren Patronatuarentzat, aktiboen balio kontulariak ez du horien balio berreskuragarria gainditzen, eta 4.4. oharrean adierazitakoaren arabera kalkulatzen da balio hori.

Aktibo horien narriaduragatik izandako galerak eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan erregistratutako narriadurarengatik izandako galeren berreskurapenak aitortzeko irizpideak 4.4 oharrean daude deskribatuta.

### **4.4 Material ibilgetuaren balioaren narriadura**

Material ibilgetuaren elementu baten balioaren narriaduraren ondorioz galera sortzen da balio kontulariak balio berreskuragarria gainditzen duenean. Azken hori da arrazoizko balioen artean zenbatekorik handiena duena, salmenta-kostuak eta erabilera-balioa kenduta. Eskudiruaren fluxuak sortzen ez dituen aktibo baten balioaren narriadura da zerbitzu aktiboaren potentziala galtzea. Ez da amortizazioa osatzen duen balio-galera sistematiko eta erregularraren modukoa. Hortaz, narriadura da aktiboak eskaintzen duen erabilgarritasuna murriztea. Indarrean dagoen araudiaren arabera, eskudiruaren fluxuak

sortzen ez dituen aktibo erabili baten balioa birjartze-kostuari egindako erreferentziaren arabera zehaztuko da.

Horretarako, Fundazioak ekitaldiaren amaieran behintzat baloratu beharko du ea badagoen material ibilgeturen bat narratuta egon daitekeela adierazten duen zantzurik. Hala bada, bere zenbateko berreskuragarria kalkulatuko du, eta dagozkion balorazio-zuzenketak egingo ditu. Material ibilgetuaren elementuen narriaduraren ondorioz egindako balorazio-zuzenketak eta narriadura horiek eragin dituzten baldintzak dagoeneko ez daudenean egindako zuzenketak emaitzen kontu laburtuan egindako gastuak edo diru-sarrerak izango dira, dagokienaren arabera. Narriaduraren zuzenketaren muga izango da balioaren narriadura erregistratu ez balitz zuzenketaren egunean aitortuta egongo litzatekeen ibilgetuaren kontularitzako balioa.

2022ko eta 2021eko ekitaldietan, Fundazioak ez du galerarik izan material ibilgetuaren narriadurarengatik.

#### **4.5 Finantza-tresnak**

Fundazioak erakunde batean aktibo finantzarioa sortzen duten eta era berean beste erakunde batean pasibo finantzarioa edo ondare-tresna sortzen duten kontratuak ditu erregistratuta finantza-tresnen kapituluan.

Finantza-tresnak finantza-aktibo, finantza-pasibo edo ondare propioaren tresna gisa sailkatzen dira hasierako aitortza egiteko garaian, kontratzko hitzarmenaren funts ekonomikoaren eta finantza-aktibo, finantza-pasibo edo berezko ondarearen tresnaren definizioen arabera.

Balorazioa egiteko, honela sailkatzen dira finantza-tresnak: kostu amortizatuko finantza-aktiboak eta -pasiboak; emaitzen kontu laburtuan aldaketak eragiten dituzten eta arrazoizko balioa duten finantza-aktiboak eta -pasiboak; ondare garbian aldaketak eragiten dituzten eta arrazoizko balioa duten finantza-aktiboak eta -pasiboak; eta kostuaren araberako finantza-aktiboak. Aurreko kategorien sailkapena egiteko tresnaren ezaugarriei eta Fundazioaren Patronatuak hasierako aitortza egiteko garaian dituen asmoei erreparatzen zaie.

Finantza-tresnak aitortzen dira Fundazioa kontratuaren edo negozioaren derrigorezko aldea bihurtzen denean, kontratuaren xedapenen arabera.

##### **Finantza-aktiboak**

##### ***Sailkapena eta balorazioa-***

Fundazioak dituen finantza-aktiboak bat datozen kategoria hauekin:

###### ***I. Kostu amortizatuko aktiboak***

Jarduera propioko eragiketetan sortutako aktibo finantzarioei dagozkie (erakundeen eragiketengatiko kredituak), edo, jatorria Fundazioaren jardueretan ez izanik, ondare-tresnak edo deribatuak ez direnak, eta horien kobrantzak zenbateko

jakinekoak edo mugagarriak direnak eta merkatu aktibo batean negoziatzen ez direnak (gainerako eragiketengatiko kredituak).

Finantza-aktibo horiek arrazoizko balioagatik erregistratzen dira hasieran, hau da, transakzioaren prezioari dagokio, aurkakoa egiaztatu ezean. Horrek esan nahi du, entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioari gehi zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuei dagozkiela. Gero, aktibo horiek amortizatutako kostuan baloratuko dira. Sortutako interesak laburtutako emaitzen kontuan zenbatuko dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz.

Hala ere, urtebete baino gehiagokoa ez den iraungitze-data duten jardueren eta epe luzean jasotzea espero den kontratuzko interes-tiporik ez dutenen (kobratzeke dauden dibidenuak) operazioen kredituak balio nominalean baloratuko dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez denean.

Fundazioak, gutxienez ekitaldi-itxieran, beharrezko balioespen-zuzenketa k egiteko irizpideari jarraitzen dio, baldin eta ebidentzia objektiboa badago kreditu baten balioa narriatu egin dela hasierako kontabilizazioaren ondoren gertatutako gertaera baten edo gehiagoren ondorioz, eta horrek etorkizuneko diru-fluxu estimatuak murriztea edo atzeratzea badakar, zordunaren kaudimengabeziaren ondorioz. Kasu horretan, balioaren narriadura dela-eta izandako galeraren zenbatekoa da finantza-aktiboaren liburu-balioen eta etorkizuneko eskudiruaren fluxuen egungo balioaren arteko aldea, hasierako kontabilizazioaren unean kalkulatutako benetako interes-tasa deskontatuta.

Narriaduragatik egindako balio-zuzenketa, bai eta ondorengo gertaera baten ondorioz galeraren zenbatekoa murrizten denean egindako itzulketak ere, gastu edo diru-sarrera laburtutzat hartzen dira emaitzen kontu laburtuan. Narriaduraren itzulketaren muga balioaren narriaduragatik izandako galera erregistratu ez balitz aktiboek izan zitzaketen liburu-balioena da.

### **Kostu amortizatuko finantza-pasiboak**

Finantza-pasiboak dira berezko jardueraren eragiketetan (jardueren eragiketengatiko zorrak) edo jatorria Fundazioaren jardueretan ez izanik, ondare-tresnak edo deribatuak ez direnetan (jarduerekin lotuta ez dauden eragiketengatiko zorrak) sortu diren eta Fundazioak ordaindu behar dituen zorrak eta partidak.

Ordaindu beharreko zorrak eta partidak arrazoizko balioan baloratzen dira hasieran, hau da, transakzioaren prezioari dagokio, aurkakoa egiaztatu ezean. Horrek esan nahi du, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioari dagokiola, zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuen arabera egokituta. Gero, pasibo horiek amortizatutako kostuan baloratuko dira. Sortutako interesak laburtutako emaitzen kontuan zenbatuko dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz.

Hala ere, urtebete baino gehiagokoa ez den iraungitze-data duten berezko jardueraren eta epe luzean ordaintzea espero den kontratuzko interes-tiporik ez dutenen operazioen zorrak balio nominalean baloratuko dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez denean.

Fundazioak ez die finantza-pasiboei baja ematen horiek sortzeko betebeharra iraungitzen direnean. Fundazioak pasibo finantzarioaren edo baja ematen zaion pasibo horren zatiaren liburu-balioaren eta ordaindutako kontraprestazioaren arteko aldea aitortzen du (transakzio-kostu egozgarriak eta onartutako eskudirua edo pasiboa ez den beste edozein aktibo utzita barne), gertatzen den emaitza-kontu laburtuan zordunduta edo abonatuta.

#### *Zordunketak eta ordaindu beharreko partidak*

Gizarte Segurantzako organismoekin edo aktibo eta pasibo fiskalekin (arruntak zein ez-arruntak) emandako dirulaguntzetatik, kredituetatik edo zordunketetatik eratorritako fundazioarekiko eskubide eta betebeharretatik datozen saldo zordunek eta hartzekodunek, kobratzeko eskubidea edo ordaintzeko betebeharra izan arren, ez dute kontratu-harremanik; izan ere, legezko errekerimendu batean edo administrazio publikoen sustapen-jardueretan dute jatorria, eta, beraz, ez dira aktibo edo pasibo finantzariotzat hartzen.

#### *Arrazoizko balioa*

Arrazoizko balioa da interesatutako eta ondo informatutako aldeen eta elkarrekiko independentzia-baldintzetan transakzioa egiten dutenen artean trukatu daitekeen aktibo edo likidatutako pasibo baten zenbatekoa.

Oro har, arrazoizko balioarekin baloratutako finantza-tresnen balorazioan, Fundazioak horien merkatuko balioa erabiltzen du, hau da burtsaren kotizazioa edo ekitaldia ixterakoan likidatutako balioa.

#### **4.6 Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk**

Eskudiruaren eta beste aktibo likido baliokide batzuen barnean sartzen dira kutxan eta kreditu-erakundeen banku-deposituetan dagoen eskudirua.

#### **4.7 Dirulaguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak**

Gernika-Lumoko Udalak egindako ekarpena dirulaguntza horiekin egin diren programak garatzen diren ekitaldiko emaitzei egozten zaie, eta emaitzen kontu laburtuko berezko jardueraren diru-sarreren epigrafean erregistratzen da (12.1 oharra).

#### **4.8 Irabazien gaineko zerga**

Ekitaldiko Sozietaeten gaineko Zergaren gastua Irabazi Asmorik Gabeko eta Erakundeen eta Mezenasgoaren Pizgarri Fiskalen Erregimen Fiskalari buruzko 2019ko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauaren arabera kalkulatzen da (11. oharra).

#### **4.9 Diru-sarrerak eta gastua**

Diru-sarrerak eta gastuak sortzapen-irizpidearen arabera egozten dira, hau da, ondasunek eta zerbitzuek ordezkatzen duten benetako korrontea sortzen denean, ondasun eta zerbitzu horietatik eratorritako moneta-korrontea edo korronte finantzarioa sortzen den unea gorabehera. Zehazki, esleitutako dirulaguntzak gastu gisa erregistratzen dira Fundazioari dagokion organoak dirulaguntza horiek eman, konprometitu edo ezarri dituen ekitaldian bertan.

Berezko jardueragatik Fundazioak dituen diru-sarreren barruan daude kolaboratzaileek egindako integragarriak ez diren ekarpenak eta laburtutako balantze pasiboan emandako jatorrizko zenbatekoaren arabera ageri dira. Emaitzetan egoztek garaian, sortzapen-irizpidea aplikatzen da.

#### **4.10 Ingurumeneko ondasun-elementuak**

Ingurumeneko aktiboak dira Fundazioaren jardueran modu iraunkorrean erabiltzen diren ondasunak. Horien helburu nagusia da ingurumeneko inpaktu txikitzea eta ingurumena babestu eta hobetzea, baita etorkizuneko kutsadura murriztea edo ezabatzea ere.

Fundazioak egiten dituen jardueren helburu nagusia da bere ekintzek ingurumenean izan dezaketen kaltea prebenitzea, murriztea edo zuzentzea.

Egindako ebaluazioak adierazten du Fundazioak ez duela ingurumeneko erantzukizunik, gasturik, jarduerarik, hornikuntzarik eta arriskurik ondarearekiko, finantza-egoerarekiko eta emaitzekiko esanguratsua denik.

#### **4.11 Lotutako aldeen artean egindako transakzioetan erabilitako irizpideak**

Talde bereko erakundeen artean operazioak egiten badira, lotura maila gorabehera, arau orokoren arabera kontabilizatuko dira. Egiten diren transakzioen xede-elementuak arrazoizko balioaren arabera kontabilizatuko dira hasieran. Ondorengo balorazioa dagozkion kontuen arau partikularretan aurreikusitakoaren arabera egingo da.

#### **4.12 Korronteen eta ez korronteen arteko aktiboen eta pasiboen sailkapena**

Erantsitako balantze laburtuan, saldoak korronte eta ez korronte gisa daude sailkatuta. Korronteak dira Fundazioak saltzea, kontsumitzea, ordaintzea edo ustiapen-ziklo arruntaren barruan egitea espero dituenak. Sailkapen horrekin bat ez datozenak dira ez korronteak.

### **5. Ibilgetu ukiezina**

2022 eta 2021 ekitaldietan ibilgetu ukiezinaren hainbat kontutan izandako mugimenduak eta pilatutako dagozkien amortizazioetan izandakoak hauek dira:

2021eko eta 2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiak

IBILGETU UKIEZINA	Erabileran utzitako aktiboei buruzko eskubideak	Guztira
<b>Kostua: 2021/01/01</b>	<b>102.000</b>	<b>102.000</b>
2021eko gehikuntzak	-	-
<b>Kostua: 2021/12/31</b>	<b>102.000</b>	<b>102.000</b>
2022ko gehikuntza	-	-
<b>Kostua: 2022/12/31</b>	<b>102.000</b>	<b>102.000</b>
<b>2021/01/01ean pilatutako amortizazioa</b>	<b>(102.000)</b>	<b>(102.000)</b>
2021eko amortizazioak	-	-
<b>2021/12/31n pilatutako guztizko amortizazioa</b>	<b>(102.000)</b>	<b>(102.000)</b>
2022ko amortizazioak	-	-
<b>2022/12/31n pilatutako guztizko amortizazioa</b>	<b>(102.000)</b>	<b>(102.000)</b>
<b>2021/12/31 garbia guztira</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>2022/12/31 garbia guztira</b>	<b>-</b>	<b>-</b>

#### *Erabileran utzitako aktiboei buruzko eskubideak*

2004ko abenduaren 1etik, Fundazioak Gernikako Artekale 1-1 zenbakiko higiezinaren erabilera du esleitura inolako kontraprestaziorik gabe eta Gernikako alkateak 2004ko abenduaren 1ean igorritako ziurtagiriaren arabera, haren balio ziurtatua 102.000 eurokoa da, eta zenbateko hori da salmenta-balioarekin gehien alderatu datekeena.

Atxikipen-epea hamar urtekoa izan zenez, bai erabilera-eskubideak, bai dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak emaitzei egotzi zitzazkien bizi erabilgarrian zehar. Erregistratutako kostuaren kontrapartida balantze laburtuaren pasiboan jaso zen, “Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak” izeneko epigrafean.

#### **6. Ondare historikoaren ondasunak**

2022ko eta 2021eko abenduaren 31ko epigrafe honen xehetasunak 55.220 euroko zenbatekoa duen liburutegia jasotzen du. Liburutegi hori Fundazioa eratu zenean (1. oharra) eman zuten, eta ez da amortizatzen kontuetan, haren bizitza erabilgarria mugagabea delako.

#### **7. Material ibilgetua**

2022 eta 2021 ekitaldietan ibilgetu materialaren hainbat kontutan izandako eta pilatutako amortizazioetan izandako mugimenduak hauek dira:

2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldia:

MATERIAL IBILGETUA	Altzariak	Guztira
<b>Kostua: 2021/01/01</b>	7.351	7.351
2021eko gehikuntzak	-	-
<b>Kostua: 2021/12/31</b>	7.351	7.351
2022ko mendekotasunak	-	-
<b>Kostua: 2022/12/31</b>	7.351	7.351
<b>2021/01ean pilatutako amortizazioa</b>	(7.351)	(7.351)
2021eko amortizazioak	-	-
<b>2021/12/31n pilatutako guztizko amortizazioa</b>	(7.351)	(7.351)
2022eko amortizazioak	-	-
<b>2022/12/31n pilatutako guztizko amortizazioa</b>	(7.351)	(7.351)
<b>2021/12/31 garbia guztira</b>	-	-
<b>2022/12/31 garbia guztira</b>	-	-

2022ko eta 2021ko abenduaren 31n, etengabe erabiltzen diren material ibilgetuaren elementu guziak erabat amortizatuta daude.

## 8. Administrazio publikoak

abenduaren 31n kobrau beharreko beste kontu batzuen xehetasuna hau da:

Euroak	<b>Kobrau beharreko beste kontu batzuk</b>	
	<b>2022</b>	<b>2021</b>
Hainbat zordun (lotutako enpresak)	0	40.000
<b>Guztira</b>	<b>0</b>	<b>40.000</b>

## 9. Ondare garbia

2022 eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan zehar “Funts propioak” izeneko atalaren epigrafeetan izandako mugimenduak hauek dira:

FUNTS PROPIOAK	Fundazioaren zuzkidura	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako soberakinak	Ekitaldiko soberakina	FUNTS PROPIOAK GUZTIRA
<b>2020/12/31ko saldoa</b>	80.052	-23.736	-887	-	55.429
2021eko gehikuntzak	-	-	-	-	-
2021eko murrizketak	-	-	-	-	-
2021eko transferentziak	-	-	-	-	-
<b>2021/12/31ko saldoa</b>	<b>80.052</b>	<b>-23.736</b>	<b>-887</b>	<b>-</b>	<b>55.429</b>
2022eko gehikuntzak	-	-	-	-	-
2022eko murrizketak	-	-	-	-	-
2022eko transferentziak	-	-	-	-	-
<b>2022/12/31ko saldoa</b>	<b>80.052</b>	<b>-23.736</b>	<b>-887</b>	<b>-</b>	<b>55.429</b>

## **9.1 Fundazioaren zuzkidura**

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n epigrafe honetan dagoen saldoaren barruan dago Elkarteak Fundazioa eratzean emandako ondasunei esleitutako kontularitzako balorazioa, eta 80.052 eurokoa da (1. oharra).

## **9.2 Erreserbak**

2022ko eta 2021eko abenduaren 31ko laburtutako balantzeen epigrafe honetako saldoa bat dator Fundazioak 2008ko ekitaldian Kontabilitate Plan Orokor berria indarrean sartu zuen unean kontularitzako irizpidean egindako aldaketarekin.

## **10. Finantza-pasiboak**

### *Kostu amortizatuko finantza-pasiboen kategoriak*

Abenduaren 31ko finantza-pasiboen kategoriaren eta klasearen araberako sailkapena hau da:ok	Kostu amortizatuko pasiboak	
	2022	2021
Hainbat hartzekodun (lotutako enpresak)	0	40.000
<b>Guztira</b>	<b>0</b>	<b>40.000</b>

### *Arrazoizko balioari buruzko informazioa*

Fundazioaren Patronatuaren ustez, zordunketen eta ordaindu beharreko partiden liburueta zenbatekoa bere arrazoizko baliora hurbiltzen da.

## **11. Egoera fiskala**

Fundazioa Irabazi Asmorik Gabeko eta Erakundeen eta Mezenasgoaren Pizgarri Fiskalen Erregimen Fiskalari buruzko 2019ko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauan ageri den zerga-erregimenaren mende dago.

Fundazioak azken lau urteetan zehar egindako operazio guztiak ditu ikuskapen fiskalerako zabalik. Fundazioaren Patronatuko kideen iritziz, ez dago zerga-autoritateek ikusatzeko zabalik dauden ekitaldietan egin ditzaketen balizko berrikuspenetatik erator daitekeen kontingentzia-kopuru esanguratsurik.

4/2019 Foru Arauaren 9. artikuluaren arabera, Sozietaeten gaineko Zergatik salbuetsita daude Fundazioaren xede soziala edo helburu espezifikoa garatzen duten ustiapan ekonomikoetatik eratorritako errentak, baita soilik laguntzaileak direnak edo aurrekoen osagarriak direnak edo garrantzi gutxi dutenak ere.

Bestalde, arauak ezartzen du laguntzaileek edo ongileek egindako diru-sarreretatik eta kuotetatik eratorritako errentak eta kanpo-jarduerak finantzatzera bideratutako dirulaguntzak salbuetsita daudela.

Halaber, salbuetsita daude Fundazioaren ondare higigarritik eta higiezinetik eratorritako errentak, baita edozein titulu, ondasun eta eskubide erosteagatik edo transferitzeagatik eratorritakoak ere.

Aurreko hori dela eta, 2022ko eta 2021eko ekitaldietako Sozietaeen gaineko Zergaren Zerga Oinarria nula da.

## **12. Diru-sarrerak eta gastuak**

arraian, 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien emaitzen kontu laburtuen epigrafeetako edukia banakatuko dugu.

### **12.1 Ekitaldiaren soberakinari egotz dakizkiokeen dirulaguntzak**

Hau da 2022 eta 2021eko ekitaldien banakapena:

Euroak	2022	2021
Administrazio publikotik eratorritako dirulaguntzak	<b>13.120</b>	<b>93.120</b>
- Eusko Jaurlaritza	0	80.000
- Gernika-Lumoko Udala	13.120	13.120
<b>Guztira</b>	<b>13.120</b>	<b>93.120</b>

### **12.2 Dirulaguntzak**

2022ko eta 2021eko emaitzen kontu laburtuaren epigrafe honek Gernika Gogoratzu Bakearen Aldeko Ikerketa Elkarteak aurkeztutako jarduketa-programaren garapenerako Fundazioak egindako ekarprena jasotzen du.

## **13. Fundazioaren jarduera. Helburu propioetarako ondare-elementuak aplikatzea Administrazio-gastuak**

### **13.1 Fundazioaren jarduera**

Zuzendaritzarentzat, Fundazioak garatutako programa bakarra da xede-helburua lortzeko beharrezko jarduerak egiteko dagokion programa.

Fundazioak 2022ko ekitaldian zehar lortutako baliabide ekonomikoak eta Fundazioaren jarduera nagusia finantzatzeko erabili dituenak hauek dira:

2022		
DIRU-SARRERAK	Aurrez ikusitakoa	Egindakoa
Sektore publikoaren dirulaguntzak	13.120	13.120
<b>LORTUTAKO DIRU SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>13.120</b>	<b>13.120</b>

2021		
DIRU-SARRERAK	Aurrez ikusitakoa	Egindakoa
Sektore publikoaren dirulaguntzak	93.120	93.120
<b>LORTUTAKO DIRU SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>93.120</b>	<b>93.120</b>

Bestalde, 2022ko ekitaldian Fundazioaren jarduera nagusia egiteko erabilitako baliabide ekonomikoak hauek izan dira:

2022		
GASTUAK	Zenbatekoa	
	Aurrez ikusitakoa	Egindakoa
Dirulaguntzak	13.120	13.120
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.120</b>	<b>13.120</b>

2021		
GASTUAK	Zenbatekoa	
	Aurrez ikusitakoa	Egindakoa
Dirulaguntzak	93.120	93.120
<b>GUZTIRA</b>	<b>93.120</b>	<b>93.120</b>

Fundazioak 2022ko ekitaldian egindako jardueraren onuradunen edo erabiltzaileen kopurua hau izan da:

2022		
MOTA	Zenbakia	
	Aurrez ikusitakoa	Egindakoa
Pertsona fisikoak	1378	1478
<b>GUZTIRA</b>	<b>1378</b>	<b>1478</b>

2021		
MOTA	Zenbakia	
	Aurrez ikusitakoa	Egindakoa
Pertsona fisikoak	1378	1378
<b>GUZTIRA</b>	<b>1378</b>	<b>1378</b>

### **13.2 Helburu propietarako ondare-elementuak aplikatzea**

Euskadiko Fundazioei buruzko 2016ko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 29.2 artikuluaren arabera, Fundazioak bere emaitzen kontu laburtuko diru-sarreren % 70 bideratu beharko du gutxienez fundazioaren helburuak betetzeko. Kontzeptu guztietatik lortutako diru-sarrerei, halaber, diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak kendu beharko zaizkie, fundazioaren helburuak betetzena bideratutakoak izan ezik. Betebehar hori betetzeko epea emaitza eta diru-sarrera horiek lortu diren ekitaldiaren hasiera eta ekitaldia itxi ondorengo hiru urtetakoia izango da.

Errenta eta diru-sarrera garbiak zehazteko, Patronatuak Protektoratuaren antolaketaren eta funtzionamenduren araudia onartzeko 2007ko ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 21. artikulan finkatutako irizpideak aplikatzen ditu.

Hori horrela, 2021eko ekitaldiko errenta eta diru-sarrera garbiak 93.120 eurokoak izan ziren, 2022ko ekitaldian aldiz, 13.120 eurokoak. Bi kasuetan kalkulatutako datak jarraian ageri dira:

	<b>Euroak</b>	
	<b>2022</b>	<b>2021</b>
Diru-sarrera gordin konputagarriak		
Ekitaldiaren soberakinari egotz dakizkiokeen dirulaguntzak	13.120	93.120
Soberakin garbia	13.120	93.120

Fundazioaren helburuak betetzena bideratutako funtsak: 2021ean 93.120 eurokoak eta 2022an, 13.120 eurokoak, xehetasun hauen arabera:

	<b>Euroak</b>	
	<b>2022</b>	<b>2021</b>
Dirulaguntzak	13.120	93.120

Fundazioak eskuratutako dirulaguntza guztiak fundazio-helburuak betetzena bideratzenten ditu.

### **13.3 Administrazio-gastuak**

Fundazioak aitortutako datuen arabera, ez dago administrazio-gastu espezifikorik 2022 eta 2021eko ekitalditarako.

## **14. Lotura duten aldeekin egindako operazioak eta saldoak**

### **14.1 Lotura duten aldeekin dituen saldoak**

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, lotutako erakundeekin zeuden saldo zordunen eta hartzekodunen xehetasuna hau da:

	Euroak			
	2022		2021	
	Zorduna	Hartzekoduna	Zorduna	Hartzekoduna
Eusko Jaurlaritza	-	-	40.000	-
Gernika-Lumoko Udala	-	-	-	-
Gernika Gogoratuz Elkartea	-	-	-	-40.000

#### 14.2 Lotura duten aldeekin dituen operazioak

Fundazioak 2022 eta 2021eko ekitaldietan lotura duten erakundeekin egindako transakzio nagusien xehetasuna honakoa da:

	Euroak			
	2022		2021	
	Ekitaldiaren soberakinari egotz dakizkiokeen dirulaguntzak	Dirulaguntzak	Ekitaldiaren soberakinari egotz dakizkiokeen dirulaguntzak	Dirulaguntzak
Eusko Jaurlaritza		-	80.000	-
Gernika-Lumoko Udala	13.120	-	13.120	-
Gernika Gogoratuz Elkartea	-	-13.120	-	-93.120
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.120</b>	<b>-13.120</b>	<b>93.120</b>	<b>-93.120</b>

#### 14.3 Patronatuko Kideei egindako ordainketak

2022 eta 2021eko ekitaldietan zehar Goi Zuzendaritzako zereginan Patronatuak egin ditu eta ez dute horregatik soldataren zenbatekorik jaso eta sortu, ezta dietarik edo bestelako ordainsaririk ere. Halaber, 2021eko eta 2022ko abenduaren 31n ez zitzaien kide horiei inolako mailegu edo krediturik eman, eta ez zegoen pentsiotik edo bizi-asegurutik eratorritako betebeharrik.

## **15. Bestelako informazioa**

### **15.1 Gobernu-organoetan izandako aldaketak**

2022ko ekitaldian, ez zen aldaketarik izan Fundazioaren Patronatuan.

Presidentea / Presidente	Don José M. Gorroño Etxebarria jauna (Gernika-Lumoko alkate- udalburua/ Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Gernika-Lumo).
Idazkaria / Secretaria	Doña Itxaso Bengoetxea Larrinaga andrea (Gernika Gogoratz Elkartearren ordezkaria / representante de la Asociación Gernika Gogoratz).
Kidea / Vocal	Doña Monika Hernando Porres andrea (Giza Eskubide, Bikitma eta Aniztasun zuzendaria / Directora de Derechos Humanos, Víctimas y Diversidad). Ordezkoa / Suplente: Don Enrique Ullíbarriena Errasti jauna
Kidea / Vocal	Doña Aintzane Ezenarro Egurbide andrea (Gogora-Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria / Directora del Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos-Gogora). Ordezkoa / Suplente: Doña Amaia Goenaga Sánchez andrea
Kidea / Vocal	Don Gorka Urrutia Asua jauna (Deustuko Unibertsitateko errektorearen ordezkaria / representante del rector de la Universidad de Deusto).
Kidea / Vocal	Don Jokin Alberdi Bidaguren jauna (Gernika Gogoratz Elkartearren ordezkaria / representante de la Asociación Gernika Gogoratz).
Kidea / Vocal	Doña María Oianguren Idigoras andrea (Gernika Gogoratz Elkartearren ordezkaria / representante de la Asociación Gernika Gogoratz).
Kidea / Vocal	Don Jokin Garatea Gerrikagoitia jauna (Gernika-Lumoko Udaleko ordezkaria / representante del Ayuntamiento de Gernika-Lumo).

### **15.2 Hirugarrengoekin eta beste pasibo kontingente batzuekin dauden bermeak**

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, Fundazioak ez die abalik eman inolako finantza-erakundeei edo hirugarrengoei.

## **16. Ordainketen atzerapenei buruzko informazioa**

Operazio komertzialetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen 200ko abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legean eta operazio komertzialetan hornitzailleei ordaindu beharreko batez besteko aldiari dagokionez urteko kontu laburtuen memorian gehitu beharreko informazioari buruz Kontabilitate eta Kontu Auditoretza Instittuak 2016ko urtarrilaren 29an egindako ebazpenaren arabera, 2022ko eta 2021eko ekitaldien amaieran ez zegoen ordaintzeko legezko epea gainditzen zuen atzerapenik zuen hornitzailleei egin beharreko ordainketarik.

**FUNDACIÓN GERNIKA GOGORATUZ  
GERNIKA GOGORATUZ IRASKUNDEA**

Urteko Kontu Laburtuen memoria

Sinatuta:



72243666E  
JOSE MARIA  
GORROÑO  
(R:  
P4805500H)  
2023.11.03  
09:28:04  
+01'00'

---

Jose .....  
Maria ..... andrea Itxaso Bengoetxea Larrinaga  
Gorrono ..... (Patronatuko idazkaria)  
Etxebarri  
a jauna  
(Patronat  
uko  
zuzendar  
ia)